ONDARROAKO UDALA

ZALDUPE UDAL KIROLDEGIA

ZALDUPE KIROLDEGIKO KIROL ZERBITZUEN ZERBITZU KONTRATUA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

Espte zkia: 2025-0548

1. SARRERA

Kontratuaren xedea Ondarroako Zaldupe Udal Kiroldegiko Uretako Sorospena, Harrera-Zerbitzua eta Kirol Jarduera Fisikoko programa gauzatzea da.

Hain zuzen ere, Kiroldegiko erabiltzaileei igerilekuan sorospen zaintza eta arreta ematea, harrera-zerbitzuan sarbide-kontrolaz gain kiroldegiko beharrezko kudeaketa eta administrazioa-lanak egitea; jarduera fisikoko programen garapena eta gidaritza gauzatzea. Kirol jarduerak herritarren ohiko beste jarduerak bezala euskaraz egitea da xedea; betiere, hizkuntza eskubideak kaltetu gabe.

Ondarroako Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunerako Udal plana onartua du. Horrela, esleipendunak zerbitzua emateko berdintasun legeetan ezarritako printzipioak eta betekizunak bermatzeaz gain, indarrean dagoen Udal Berdintasun planaren jarraibideak bermatu beharko ditu, hala nola, kirol kanpainetan, kirol programazioetan edota jarduera-informazio fitxetan honako hauek kontuan hartuko dira: emakume kirolariak eredu bezala agertu, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko balore hezkidetzaileak zabalduko dira, eta, bereziki, arreta jarriko da emakume gazteak kirol praktikara erakartzen. Halaber, balio hauek sustatu behar dira: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

57.4. artikulua: EAEko administrazio publikoek bermatu behar dute haurren eta gazteen esparruan lan egiten duten pertsonek prestakuntza egokia dutela adin horietako pertsonei eragiten dieten emakumeen aurkako indarkeria matxistaren forma espezifikoak detektatzeko eta artatzeko, bereziki, familia-eremuko edo gertuko inguruneko sexu-indarkeria, bai eta kirolean, aisialdian, ikastetxeetan eta zentro instituzionaletan eta arlo digitalean gertatzen diren indarkeriak ere.

Aurreko jarduketa guztiak, aurrerago azalduko den egutegi eta ordutegiaren barruan burutuko dira.

CPV nagusia: 92600000-7 Kirol Zerbitzuak

CPV gehigarria: 79992000-4 Harrera Zerbitzuak

2. KONTRATUAREN XEDE DIREN JARDUERA ETA EKINTZAK

Kirol instalazioak jendearentzat zabalik dauden ordutegian instalazioei zabalik eusteko eta

Ondarroako biztanleriari, bere gaitasunen, beharrizanen eta interesen arabera, erarik egokienean fisikoki sasoian egoteko eta eusteko kirol jarduerak eta zerbitzuak ematea ahalbidetzeko gutxienekoak eta beharrezkoak diren jarduerak definitzean datza kontratuaren norainokoa.

Honela banatuko dira eman beharreko zerbitzuak:

A) ADMINISTRAZIO- ETA ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA:

Ondarroako Udal Kiroldegiaren harrera zerbitzua Udalak berak ematen du, langile propioen bidez. Baina, Udalak ez duenez zerbitzua betetzeko nahikoa baliabide pertsonal, zerbitzua osatu behar da. Honela, udal langileek bete ezin dituzten orduak beteko dira zerbitzuaren bidez.

Erabiltzaileek kirol instalazioak behar den moduan erabiltzen dituztela ikuskatzea eta kontrolatzea izango da zerbitzuaren egitekoa, bai eta erabiltzaileei behar duten arreta eta informazioa ematea, instalazioek ondo funtzionatzeko beharrezkoak diren egiteko guztietan kolaboratuz.

FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK

Honakoak dira funtzio berariazkoak:

- Udal kirol zerbitzuak ezarritako ordutegiaren barruan Zaldupe Kiroldegia ireki eta ixtea.
- Zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoak diren mekanismoei eragitea. Argiak, kontrol eta iragarki pantailak, megafonia eta sauna piztu eta itzaltzea.
- Gimnasioen, pisten, eta abarren argiak kudeatzea, eraginkortasun energetikoa dela eta, instalazioaren eta mantentze-lanen arduradunek ematen dituzten oharrei jarraiki.
- Arreta zaindua erabiltzaileei, araudiari, ordutegiei eta, oro har, instalazioen erabilerarekin lotutako edozein konturi buruzko informazioa emanez, bai era presentzialean eta bai telefono deien bidez. Megafonia mezuak ematea.
- Erabiltzaileen sartu-irtenak eta erabilera kontrolatzea.
- Kirol-espazioen erabilera, erreserba eginda erabiltzen direla egiaztatzea.
- Giltzen zainketa. Jarduerak garatzeko erabiltzen diren giltza guztiak eman eta itzultzen direla egiaztatzea, hala langileei nola erabiltzaileei dagokienez.
- Galdutako objektuen kontrola.
- Instalazioan egon daitekeen edozein anomaliaren berri ematea.

- Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak jaso eta dagozkion izapideak egitea, Ondarroako Udalak ezartzen duen protokoloaren arabera.

- Kartelak jarri eta zaharkituta daudenak kentzea, eta erabiltzaileentzako oharrak eta informazioak idaztea, Ondarroako Udalaren jarraibideen arabera. Baita kartel eta ohar propioen diseinua eta gauzatzea.

- Informazioa eta publizitatea zabaldu hedabide desberdinetatik (entitatearen web, e-mail, megafonia, iragarki pantailak).

- Erabiltzaileei jakinaraztea instalazioen erabileren inguruko aldaketa puntualak.

- Datuen tratamendua (inkestak, lan parteak, estatistikak).

- Hainbat izapide administratibo: erabilerak jasotzea, kobrantzak egitea, instalazioak erreserbatzea, harpidedunen altak edota bajak kudeatzea eta eskainitako ikastaroetan izena ematea.

- Ikastaroetako izen-emateak, altak, bajak eta aldaketak egitea eta kudeaketa-lan horiei dagozkien datuak erregistratzea Ondarroako Udalaren kudeaketa-sisteman. Erreserben eta sarreren kudeaketarako beharrezkoak diren lanak ere egingo dituzte, erabileraren ziozko tasak kobratuz, eta erabiltzaileei dagokien ordainagiria emanez.

- Salmenta-sistemen bidez biltzen den diruaren kontaketa eta bilketa egitea, txanda bakoitzean diru-kutxaren onespena egitea.

- Zaldupe Udal Kiroldegiaren zerbitzuei dagozkien prezio publikoen eguneratutako ordenantza erregulatzailea aplikatzea.

- Dagozkion autokontrol erregimeneko jarduera guztiak garatzea (lan partea betetzea, gertakariak kontrolatzea eta jakinaraztea...).

- Ekitaldiak daudenean, kluben eta publikoaren sarrera eta instalazioa antolatzea.

- Kiroldegia ixterakoan, instalazioetan erabiltzailerik ez dagoela konprobatzea.

- Instalazioak nola geratzen diren begiratzea, eta irregulartasunen bat izatera, horren berri ematea.

- Itxita dauden takilak irekitzea.

- Itxita egon behar duten gela, korridore, leiho, eta abar guztiak itxita daudela konprobatzea, eta hala badagokio, zarratzea.

Eta, horiezaz gain, kontratatuta dauden lanen pareko guztiak, edo maila profesionalarekin bat datozenak, aldizkakotasuna dena delarik ere. Zerbitzuak behar bezala eman ahal izateko, arretako langile bat, gutxienez, instalazioetan izango da jendearentzat ireki baino 15 minutu lehenago, eta itxi edo jarduerak amaitu ondoren ere, ekipoak eta instalazioak

behar den moduan itzali eta deskonektatzen direla bermatu arte.

Jendeari arreta emateko langileek behar bezala uniformatuta eta argi identifikatuta joan beharko dute beti, eta, horretarako, esleipendunak dagokion enpresaren izena agerian jasoko duen janzkera egokia emango die.

Esleipendunak bermatu behar du langile guztiek dakitela zehaztasunez zein diren Ondarroako Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen, jardueren, ikastaroen eta abonuen eskaintza, sartzeko baldintzak eta prezioak. Gainera, langile horiek bezero izan daitezkeenei hasierako kirol-orientazioa emateko behar besteko gaitasuna izan behar dute.

Administrazio- eta erabiltzaileentzako arreta-zerbitzuaren kudeaketak informatizatuta egon beharko du. Horretarako, esleipendunak aukera izango du Ondarroako Udalaren kudeaketa softwarean sartzeko.

ORDUTEGI OROKORRA:

- Astelehenetik ostiralera 07:15etik 21:15etara.

  *Uztaila: 07: 15etik 13:45era eta 16: 15etik 20: 45era

- Larunbatetan, 08:45etik 13:45era eta 16:15etik 20:15era.

  *Uztaila: 07: 45etik 14:15era

- Igandeetan eta jaiegunetan, 08:45etik 13:45era.

Aurreko atalean zehaztutako ordutegia zerbitzuak bere osotasunean izango duena da. Esan bezala, Udalak langile propioak ditu, eta esleipendunak bete beharko duen ordutegia haiek bete ezin dituzten orduetara mugatuko da. Berau, alda daiteke, hobetu, murriztu edo kendu, zerbitzuaren beharretara egokitze aldera. Ordutegia Udaleko Kirol Sailak erabakiko du, esklusiboki, eta nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko da.

Kiroldegia itxita egongo da egun hauetan (Ikusi plegu honekin batera publikatzen den "Egutegia" dokumentua):

- Urtarrilaren 1ean
- Inauterietako asteartean
- Ostegun santutik Astelehen santura.
- Maiatzaren 1ean
- Uztailaren 31n
- Abuztuan, mantentze lan orokorrak egiteko.

- Abenduaren 24an, 25ean eta 31n

*Instalazioa zein egunetan itxita egongo den jakinaraziko da, nahikoa aurrerapenarekin.

Aipatutako kasuetan bezala, ordutegien aldaketak eta langileen beharrak jakinaraziko zaizkio esleipendunari, nahikoa aurrerapenarekin.

B) KIROL ZERBITZUAK / JARDUERA FISIKOKO PROGRAMAK

Ondarroako Udalaren kirol zerbitzuak ahaleginak egingo ditu herritar guztien jarduera fisikoa eta kirol jarduera sustatzeko, beren ezaugarriak, baldintzak eta interesa edonolakoak izanda ere, herritarren artean ohitura osasuntsuak bultzatze aldera.

Oinarri horren arabera, bi dira erakundeak dituen helburuak eta biek bideratzen dute erakundea jarduera fisiko eta kiroleko programak sustatu eta aurrera eramatera, bai eta kirol zerbitzuak ematera ere komunitatearen beharrak eta nahiak betetzen laguntzeko.

- Jarduera eskaintza zabala sortzea, herritarrek aukera aberatsa izan dezaten.
- Aisialdi baliagarriaren kultura sortu eta indartzea, eta ohitura osasuntsuak bultzatzea jardueren bitartez.

Ondarroako Udaleko Kirol Zerbitzuak Jarduera gidatuen eskaintza bat dauka. Kontratu honen bidez, udalak ez duenez baliabide pertsonalik, proposatutako programek garapen didaktikoa izatea, teknikari kualifikatuekin programak zehazten dituzten saioak ematea, eta parte-hartzearekin zerikusia duten datuak kudeatzea da helburu; bai eta eskaintza hori hobetzeko edo aberasteko proposamenak eta ekimenak jasotzea, eta aurrera eramatea, hala badagokio.

Pertsonal teknikoak beren betebeharrak modu autonomoan beteko ditu, ekimenez eta erabakitasunez, saioak, ikastaroak, eskolak, etab... antolatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko; halaber, zerbitzuak eta aurrera eramandako programak ebaluatzeko gaitasuna izan beharko du. Horretarako kontuan izan beharko du egunean indarrean dagoen arautegia, instalazioen erabilera jakinerako arautegia, agiri honetan jasotako betebeharrak, baita arautegi horien arduradun gisa jarduten duten langileen eskutik jasotako jarraibideak ere.

Halaber, esleipendunak beharrezko jarduera guztiak eramango ditu aurrera, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko. Hori dela eta, agiri honetan deskribatutako betebeharrak burutu beharko ditu, zerbitzuaren kalitate maila egokia bermatuz.

Zerbitzua Ondarroako Zaldupe udal kiroldegiko instalazioetan emango da gehienbat, baina tarteka hortik kanpo ere emango da, beste udal gune batzuetan.

FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK

Honakoak izango dira, zerrenda gehiegi luzatu gabe, bete beharrekoak:

- Ondarroako Udalak onartutako eta jakinarazitako denboraldiko jardueren egutegia betetzea.
- Jarduera fisikoetan erabiltzen den musika motari buruz Udalak ipinitako baldintzak betetzea.
- Jardueraren ezaugarriak errespetatzea (ordutegia eta esleitutako eremua).
- Ikasleei ez igortzea Ondarroako Udalaren kirol sailaren helburuen kontrakoak diren ideiak eta kontzeptuak.
- Ikastaroak eta/edo saioak zuzentzeko teknikariek jarduera bakoitzerako kirol jantzi egokiak erabiltzea.
- Kirol jantzien erabilera ezegokia kontrolatzea eta baita ere ikasleek ikastaroetan eta/edo saioetan erabiltzen dituzten oinetakoak, praktikarako kirol eremuak baldintza onean mantentze aldera (garbiketa eta ezaugarri teknikoak).
- Materiala prest izatea saioari ekin aurretik eta, behin amaituta, materiala jasotzea, materiala biltzeko tokietako ordenari eutsirik.
- Ikastaroetan eta/edo saioetan erabiltzen den Ondarroako Udalaren kirol materiala beste jardueretarako erabiltzen da baita ere; hortaz, esleipendunak honako zeregin hauek bermatuko ditu:
    - Materiala modu egokian erabiltzea.
    - Horretarako jarritako guneetan bildu eta biltegiratzea (material horren garbitasuna mantenduz).
    - Dagokionean, hondatuta dagoela jakinaraztea (dagokion inprimakia betez) eta erretiratzea erabilgarri ez egoteko.
- Zarata maila kontrolatzea, gainontzeko jarduerei ez eragiteko; izan ere, kirol praktikarako eremua, orokorrean, instalazio handiago batean dago, eta bestelako jarduerak eramaten dira aurrera baita ere.
- Ikastaroen partaidetzari buruzko datuak jaso eta bideratzen laguntzea.
- Kirol praktikarako eremua kontrolatzea, jardueraren arduradun zuzena den aldetik, baita portaera ezegokiak kontrolatzea ere.
- Jarduera garatzeko erabiliko diren espazioek eska daitezkeen gutxieneko segurtasun baldintzak bete ezean, esleipendunaren erantzukizuna izango da jarduera bertan behera uztea, eta berehala emango dio hutsaren edo gertatutako gorabeheraren berri Ondarroako Udalari.

- Instalazioaren arduradunari gertakari guztiak nahiz erabiltzaileek egindako oharrak jakinaraztea (kasu bakoitzean dagozkion inprimakiak bete eta harrera-bulegoan eman).

- Erreklamazioei eta gertakariei erantzutea edo arreta ematea, kirol jardueren programaren arduradun gisa, idatziz edo aurrez aurre, hala badagokio.

- Ondarroako Udalak esleipendunak aurrera eraman nahi duen edozein galdetegi mota ezagutu eta baimendu beharko du.

- Kiroldegiko arautegiak eragindako betebeharrak.

ZERBITZUA

Ondarroako kirol zerbitzutik egiten den eskaintza 2 zatitan banatu daiteke. Alde batetik, Zaldupe kiroldegian ikasturtean zehar ematen diren jarduera gidatuak daude; eta bestetik, uda kanpainan egiten direnak.

Zaldupe Kiroldegiko Jarduera Gidatuak

Ikasturteak iraun bitartean, urritik ekainera bitartean (biak barne), lehorreko zein uretako jarduera gidatuak eskaintzen dira. Orokorrean, 3 hilabeteko epealdiko ikastaroetan banatzen dira, baina egituraketa hori eskaintzara moldatzeko aukera beti dago zabalik. Ondarroako Udalak ikastaroen iraupena aldatu ahal izango du denboraldian zehar. Denboraldiko eskaintza esleipendunari jakinaraziko zaio, denboraldia hasi baino hilabete lehenago, hain zuzen.

Ikastaro hauek, esan bezala, bi multzotan ezberdintzen dira:

- Lehorreko jarduera gidatuak:

  Lehorreko jarduerak egiteko gela espezializatuak ditugu, erabilera anitzeko gelak eta cycling gela. Plegu honekin batera publikatzen den “Jarduera Gidatuen” dokumentuan ikus daiteke 2025-26 ikasturterako proposatutako ikastaroen taula.

- Uretako jarduera gidatuak:

  Zaldupe kiroldegian igerileku handia eta txikia ditugu. Bertan, igeriketa ikastaroak emateaz gain (hastapena zein nagusientzako igeriketa mantenua), aquagym saioak ere ematen dira. Plegu honekin batera publikatzen den “Jarduera Gidatuen” dokumentuan ikus daiteke 2025-26 ikasturterako proposatutako ikastaroen taula.

UDA Kanpaina

Uda sasoian, uztailetik irailera bitartean (biak barne), Ondarroako udal kirol zerbitzuak eskaintza ezberdin 2 egiten ditu.

Alde batetik, Arrigorri hondartzan jarduera gidatuak eskaintzen dira, goizez, astelehenetik

ostegunera. Plegu honekin batera publikatzen den "Jarduera Gidatuen" dokumentuan ikus daiteke 2025 uda sasoian eskainitako ikastaroen taula.

Bestetik, Zaldupe kiroldegian LH1-LH6 adin tarteko haurrentzat kirol udalekuak antolatzen dira. Udaleku horiek 2 hamabostaldikoak izaten dira, uztaileko hilabetean zehar, astelehenetik ostiralera goizeko ordutegian.

C) SOROSPEN ETA IGERIKETA BEGIRALEEN ZERBITZUAK

Otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuak onartutako erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioaren 33. artikuluak jasotakoaren arabera (EHAA, 2003ko maiatzaren 8an);

"Erabilera kolektiboko igerilekuek sorosle bat eduki beharko dute, uretako salbamenduari eta lehen sorospenak emateari buruzko prestakuntza duena".

Igerilekuaren titularra den aldetik, Ondarroako Udala da araua betetzeko ardura duena. Alabaina, Udalak ez duenez baliabide pertsonalik, betebehar hori betetzeko helburuz, kontratu honen bidez uretako sorospen zerbitzua ere kontratatu nahi da.

Aldi berean, 32/2003 DEKRETUA erreferentziako araua izango da, zerbitzuaren ezaugarri orokorrei dagokienez; halaber, zerbitzua ematen duten langileen jarduera nagusiak bideratuko ditu.

Zerbitzuak helburu bikoitza izango du. Alde batetik, igerilekuak erabiltzen dituzten pertsonen jokaera kontrolatzea, zerbitzua behar bezala erabil dezaten zuzentzea eta udal zerbitzuak ezarritako erabilera ezberdinak (erabilera koadrante nahiz beste sistema motak direla medio) behar dituzten kudeaketa jarduerak aurrera eramatea.

Eta, bestetik, erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzea; hala, erabiltzaileari lehentasuna emango zaio edozein arazo konpontzerako garaian.

Zerbitzu honen barruan doaz sorospen zerbitzuaren plangintza, koordinazioa eta exekuzioa.

Zerbitzua emateko ordutegian (instalazioak irekitzeko ordutegia barne hartzen du) beharrezkoa izango da uretako salbamendu eta lehen sorospenak emateko prestakuntza jaso duen sorosle bat egotea, gutxienez, eta titulazioa indarrean izan dezala.

Sorosleen uniformeak ondoko ezaugarriak izan behar ditu:

- Langileek behar bezalako uniformea eramango dute uneoro eta argi identifikaturik joango dira. Horretarako, jantzi egokiak emango dizkie esleipendunak, eta bertan argi azalduko da "Soroslea" hitza edo, bestela, "SOS", gutxienez, 20 cm-ko altuera izango duten hizkiak erabilita. Jantzien kolorea ere bereizi egingo da igerilekuen gainerako erabiltzaileek daramatenetatik.

- Txanda eta pertsonen artean berdintasuna mantentzea.

ONDARROAKO UDALA

SOROSLEEN FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK

Honakoak dira, zerrenda gehiegi luzatu gabe, sorosleen eginbehar berariazkoak:

- Instalazioak irekitzen direnerako sorosleak beren lantokian izango dira.
- Igerilekuan egotea irekiera ordutegi osoan, ekitaldiak daudenean (txapelketak eta abar), aisialdi jardueretan (animazioak eta abar) edo bertan antolatzen den beste edozein jardueratan.
- Erabiltzaileak zaintzea, babestea eta laguntzea.
- Erabiltzaileei kontrola egingo zaie eta aholku eman, kirol janzkera eta oinetako egokiak erabil ditzaten.
- Erabiltzaileen segurtasuna bermatzea, eta instalazioaren erabilera arautegia nahiz aplikaziokoak diren gainontzeko arautegiak betearaztea.
- Instalazioen erabiltzaileenganako lehen mailako arreta, bai istripuren bat izan dutelako, bai ondoezik daudelako, eta abar.
- Kaltetutako pertsonari arreta emateko bere esku dauden baliabide guztiak erabiltzea, eta beharrezko balitz anbulantzia zerbitzua eskatzea.
- Asistentzia bakoitzeko parte bat egitea eta gorabeheren parteen laburpen kuantitatibo bat egitea, eguneko, hileko eta beste bat amaieran.
- Botika-kutxa erabili eta hornituta mantentzearen arduraduna izatea, materiala eta medikamentuei dagokienez. Baita horiek egoera onean mantentzearena ere. Lekua ordenatuta eta garbi egoteaz ere arduratuko da bereziki, baita material berria jartzeko prozedura betetzeaz ere, beharrezkoa denean.
- Segurtasun elementuen erabileraz eta kokapenaz arduratzea.
- Dagozkion autokontrol erregimeneko jarduera guztiak aurrera eramatea (igerilekuetako uraren tenperatura, hezetasuna, uraren laginak hartu erregistratu eta neurrien jarraipena egitea, gertakariak jasotzea eta jakinaraztea...).
- Igerilekuko eremuak seinaleztatzea, erabilera kartelen bidez, eta igerilekuko mugak zehaztea, kortxo-ilarak jarriz edo kenduz, ahalik eta erabilera onena emate aldera.
- Instalazioaren ekipamendua muntatzea eta desmuntatzea jardueraren egutegiaren arabera (uretara sartzeko aulkia, kortxo-ilarak, ur-azpiko garbigailua, etab.), eta beharrezkoa baldin bada, betiere, kontratuaren egoera eta beharren arabera.
- Laguntza ematea instalaziora sartu edota irtetzeko laguntzarik eskatzen duten pertsonei.

- Materialaren erabilera kontrolatzea: bere erabilera baimentzea, aholkatzea eta mugatzea, instalazioaren funtzionamendua arautzen duen arautegiaren arabera. Materiala jasotzea materiala bera laga duen pertsonaren ardura izango da.

- Hezkuntza kontaktua mantentzea eta aholkuak ematea, igeriketaren praktika egokiari buruz eta baita ere instalazioen erabilera onari eta erabiltzaileekiko errespetuari buruz.

- Igerilekuko zerbitzua ematean izandako gorabeherak dagokion inprimakian jasotzea eta Harrera Bulegoko langileari jakinaraztea, izapidetu ditzan.

- Erabiltzaileek egindako kexak, eskaerak edota iradokizunak dagokion inprimakian jasotzea eta Harrera Bulegora bidaltzea, izapidetu ditzan.

- Laneko ordutegian debekatuta dago tresna elektronikoak erabiltzea, igerileku barruan jatea, irakurtzea edo zerbitzuz kanpoko pertsonekin hitzordua jartzea.

- Kiroldegiko arautegiak eragindako betebeharrak.

ORDUTEGI OROKORRA:

- Astelehenetik ostiralera 07:30etik 21:00etara.

  *Uztaila: 07: 30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era

- Larunbatetan, 09:00atatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

  *Uztaila: 08:00etatik 14:00etara

- Igandeetan eta jaiegunetan, 09:00etatik 13:30era.

Kasu guztietan, sorosleak instalazioa prestatuko du 15 minutu aurretik.

Aurreko atalean zehaztutako ordutegia alda daiteke, hobetu, murriztu edo kendu, zerbitzuaren beharretara egokitze aldera. Ordutegia Udaleko kirol sailak erabakiko du, esklusiboki, eta nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko da.

Kiroldegia, eta, ondorioz, igerilekua, itxita egongo da egun hauetan (Ikusi Plegu honekin batera publikatzen den “Egutegia” dokumentuan):

- Urtarrilaren 1ean

- Inauterietako asteartean

- Ostegun santutik Astelehen santura.

- Maiatzaren 1ean

- Uztailaren 31n
- Abuztuan, mantentze lan orokorrak egiteko.
- Abenduaren 24an, 25ean eta 31n

*Instalazioa zein egunetan itxita egongo den jakinaraziko da, nahikoa aurrerapenarekin.

Aipatutako kasuetan bezala, ordutegien aldaketak eta langileen beharrak jakinaraziko zaizkio esleipendunari, nahikoa aurrerapenarekin.

D) ZERBITZUAREN ORDU KOPURUA URTEZ URTE

Kontratuaren barruan doazen zerbitzu ezberdinen ordu kalkulua egin da.

Alde batetik, urteko egutegia ikusita, sorospen ordu kopurua atera da, eta baita harrera zerbitzuetan behar diren ordu gehigarriak ere, udal langileen lan-orduak kopuru horri kenduta.

Bestetik, jarduera gidatuen eskaintza totalak behar dituen ordu kopurua ere kalkulatu da. Horrela, azpiko taulan ikus daiteke kontratu honen iraupenean aurreikusten diren ordu kopuruak urtez urte eta zerbitzuetan banatuta.

URTEA	HARRERA	SOROSPENA	JARDUERA FISIKOA	GUZTIRA (orduak)
2026	1260	3700	2720	7.680
2027	1260	3700	2720	7.680
2028	1260	3700	2720	7.680
GUZTIRA	**3.780**	**11.100**	**8.160**	**23.040**

3. BALIABIDE MATERIALAK:

Udalak Zaldupe udal kiroldegiko instalakuntzak erabiltzeko aukera emango dio esleipendunari. Udala arduratuko da eraikinaren mantenuaz eta garbiketaz.

Udala arduratuko da baita ere, esleipendunak bere jarduera behar bezala egiteko beharrezkoak diren hornidurez (ura, argia, telefonia, wifia …) baita ekipamenduez eta kirol materialaz ere.

Esleipendunak egoera ezin hobean eduki beharko ditu instalazio eta elementu osagarriak, eta itundutako zerbitzura baino ez ditu bideratuko.

Esleipendunak hilean behin kirol eremu ezberdinetan eskuragarri dagoen materialaren inbentario eguneratua aurkeztu beharko du, baita eskuratu beharreko materialaren proposamena ere, behar izanez gero.

Inbentarioak monitoreek zein sorosleek egingo dituzte, eta esleipendunak berrikusitako txosten bat entregatuko da.

4. GIZA BALIABIDEAK:

Aplikagarria den araudiarekin bat etorrita, agiri honen xede diren zerbitzuak gaur egungo esleipendunen bidez, Plegu honekin batera publikatzen den "Subrogazio Taula" dokumentuan adierazten diren baldintzekin, ematen dituzten langileen zerrenda erantsi da. Baldintza agiri honen xede diren zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak esleipendun berria den enpresarenak izango dira.

Agiri honen xede diren egitekoak arrakastaz burutzeko, ahalik eta bermerik handienaz aurre egiteko gaitasun berezia duen lantaldea erabiliko du esleipendunak baldintza agiri honen xede diren lanak burutzeko.

Esleipendunak Ondarroako Udalari atxikita dauden instalazioetarako dauzkan langileen artean aldaketa, uzte edo lekualdaketaren bat gertatuz gero, justifikatua izan beharko du, eta berehala jakinarazi beharko zaio Ondarroako Udalari. Ondarroako Udalak beretzat gordetzen du esleipendunak lanposturako bidaltzen duen langilearen kualifikazio profesionala eta egokitasuna aztertzeko eskumena, eta langileak ezets ditzake, gauzatu behar dituzten funtzioetarako egokiak ez direla uste izanez gero.

Esleipendunak ziurtatu egingo du zerbitzuari atxikita dauden langileek, betebehar dituzten funtzioen arabera, dagokien neurrian, honakoak ezagutu, bete eta betearazten dituztela:

- Ondarroako Udalak indarrean duen araudia (Instalazioen autobabes planak, Instalazioen zerbitzuen arautegiak, Igerilekuen autokontrolerako plana, eta abar).
- Kirol instalazioetan eginbeharreko lanetako oinarrizko jarduketarako jarraibideak.
- Ezinbestean bete eta erabili beharreko prozedura funtsezkoenak.
- Kontratu honen zehaztapenak.

Araudia ezagutzetik eratortzen diren erantzukizuna eta kostua esleipendunaren kontura joango dira. Beraren mendeko kontratek egiten dituzten jardueretara zabaltzen da erantzukizun hori.

Esleipenduna izango da, halaber, langileen laneko jantzien eta identifikazioaren erantzule, eta berak emango dizkie jantziok, honakoak aintzat hartuta:

- Zerbitzuei atxikita dauden langileek nahitaez erabili beharko dituzte erabiltzaileek langileok bereizteko ezartzen diren jantziak eta daukan lanpostua adierazten dituen identifikazio sistema.

Administrazio- eta bezeroen arreta-zerbitzuari atxikita dauden langileek kontratuaren xede diren jarduerak gauzatzeko adinako prestakuntza izan beharko dute.

Kirol- zerbitzuei atxikita dauden langileek kontratuaren xede izanik, esleitu zaizkien jarduerak emateko beharrezkoa den titulazioaren eta behar adinako esperientziaren jabe

izan beharko dute.

Honakoa izango da uretako jarduerak ematen dituzten langileek izan beharreko gutxieneko kualifikazio teknikoa:

- Uretako sorosle titulua, osasun agintariek egiaztatutako entitateak emana. DEA delakoa erabiltzeko eskumena.
- Igeriketa begiralearen titulua, Espainiako Igeriketaren Errege Federazioaren Entrenatzaile Eskola Nazionalak emanda, edo ziurtagiria duen entitateak emandako pareko titulazioa.

Langileek honako betekizunak beteko dituztelako konpromisoa hartuko du esleipendunak:

- Langileak puntualak izango dira jardueren hasieran eta amaieran, eta ez dute jardueretarako diren espazioetatik alde egingo zerbitzua garatzekoa den denbora tarte osoan.
- Zerbitzuan aritu bitartean ez dira honakoak egingo: sakelako telefonoak edo musika aparatuak erabili, jan, irakurri edo zerbitzuari atxikita ez dauden pertsonekiko hitzorduak izan.
- Arautegia aplikatuko dute, eta dagokion eran jokatuko dute portaera ezegokiak gertatuz gero.
- Kirol eskaintzaren eta kudeaketa zerbitzuaren egokitzapena eta hobekuntza xede izanik, enpresak proposatzen eta adosten dituen prestakuntza ikastaroak egingo dituzte.

Langileek egiaztatu beharko duten euskararen gaitasun-maila:

- Harrerako langileek: Europako Erreferentzia Markoaren C1.
- Sorosleek: Europako Erreferentzia Markoaren B2.
- Jarduera fisikoko monitoreek: Europako Erreferentzia Markoaren C1.

5. LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Esleipendunak kontratu honetan jasotako zerbitzuak ustiatzeko eta emateko beharrezkoak diren langile-gastu guztiak ordaindu behar ditu, bai eta kontrataziotik, gizarte-aseguruetatik, istripu-aseguruetatik, baja-aseguruetatik edo lan- absentismotik eratorritako gastu guztiak ere.

Kontratuaren xede diren zerbitzuetara atxikitako langileak dagokien Gizarte Segurantzako araubidean sartuta egon beharko dira. Esleipenduna behartuta dago egiten diren lan-

kontratuak lan-legeriarekin bat etortzera, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari une bakoitzean legez ezarritako kuotak ordaintzera ere.

Zerbitzua ematen duten langileak enpresa-adjudikaziodunari atxikita egongo dira, eta ez dute inolako lan-loturarik izango udalarekin; enpresak zehaztasun hori jakinarazi behar die.

Esleipendunak lan-arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak ere; udala, berriz, langileekin sortzen diren lan-arloko gaietatik kanpo egongo da.

Esleipendunak kontratuaren xede diren zerbitzuak ematen dituzten langileen kontratuen kopia emango dio udalari. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du aurreko legezko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa.

Egiaztapen hori ukatzea edo oztopatzea, bai eta alta eman gabeko langileak iruzurrez erabiltzea ere, kontratua deuseztatzeko arrazoiak izango dira. Egiten diren lan guztietan horiek garatzen dituzten xedapen eta araudi tekniko guztiak beteko dira, eta esleipendunaren erantzukizuna izango da horiek betetzea.

Agiri honetan zehaztutako ordu kopurua betetzeko pertsona nahikoa izatea, kontuan hartuta era anitzeko ordezkapenak, atsedenak, bajak, ordurako ezin joan izateak etab.

6. ZERBITZU- ETA LAN-HIZKUNTZA:

Esleipendunak zerbitzua emango du, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki, Udalak bere hizkuntza jarduera arautzeko onartutako Euskararen Erabilera-Planaren arabera. Eta nola euskara den udaleko ohiko erabilerako lan- eta zerbitzu-hizkuntza, esleipendunak kontratu-arduradunarekin harremanetan jarriko da, zerbitzua ematerakoan bete beharko diren hizkuntza baldintzen berri eman diezaion.

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, kontratuaren zerbitzu-hizkuntza euskara izango da. Ikastaroetan, sorospen-zerbitzuetan, arreta-zerbitzuan zein herritarrekin bideratzen diren bestelako komunikazioetan euskarazko harremanak ziurtatuko dira; beti ere, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Herritar eta zerbitzu-erabiltzaileei harrera egin eta erantzuteko bideak:

- Lehen hitza euskaraz egingo zaie beti; eta hortik aurrera, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

- Taldeko jarduerak: jarduera fisikoko programazio edota ikastaroak euskaraz egingo dira. Gaztelaniaren erabilera ezinbesteko egoeratara mugatuko da (banakako azalpena euskaraz ulertzen ez dutenei, laburpena gaztelaniaz…).

- Idatzizko jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, abisuak, ordutegiak, ordainagiriak, megafonia, ikastaroko partaideen ebaluazioak...) euskaraz egingo

dira.

- Lanari lotutako hizkuntza-harremanak, ahoz zein idatziz, euskaraz izango dira, hala nola: bilerak, telefonozko harremanak, aktak, txostenak, memoriak, oharrak… Zerbitzua kudeatzeko aplikazio informatikoa euskaraz erabiliko da.

Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere, udalarekin aldez aurretik adostuta.

Euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Euskara Sailaren aholkularitza izango dute.

Musika ipintzekotan euskal musika ipiniko da.

***AZKEN OHARRA**

***Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko litzateke aintzat**.*

Ondarroan, sinadura digitalaren datan

Kontratuaren arduraduna

Antxon Alberdi Barrutia